DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Zerbitzu Orokorren Batzordea
Comisión de Servicios Generales

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

## 21. AKTA

## Zerbitzu Orokorren Batzordea

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2025-04-10

**Ordua:** 11:40 h

**Tokia:** Loretope aretoa

**Batzordeburua:** Ana Lopez Loiarte

**Etorritakoak:**

**Zinegotziak**:

Kerman Orbegozo Uribe

Martin Ibabe Eceiza

Olatz Yarza Garagorri

Jabier Vitoria Roma

Markel Ormazabal Gaztañaga

Itziar Iturri Arrazola

Iñigo Garcia Villanueva

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Jorge Mota Iglesias

Arantza Gonzalez Garcia

**Beste zinegotzi batzuk**:

Mª Jesus Idoeta Madariaga *(11:40etan bilerara sartu da eta 12:12 etan irten da)*

Izar Hernando Ibero

**Beste batzuk:**

Josune Lezana eta Ana Murua, gonbidatuak, *(4.2. puntuan sartu dira eta puntu hori bukatu ondoren atera dira bileratik).*

**Idazkaria**: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Idazkari Nagusiak eskuordeturik.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi

## ACTA Nº 21

## Comisión de Servicios Generales

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 10-04-2025

**Hora:** 11:40 h

**Lugar:** Sala Loretope

**Preside:** Ana López Loiarte

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas**:

Kerman Orbegozo Uribe

Martín Ibabe Eceiza

Olatz Yarza Garagorri

Jabier Vitoria Roma

Markel Ormazabal Gaztañaga

Itziar Iturri Arrazola

Iñigo García Villanueva

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Jorge Mota Iglesias

Arantza González García

**Otros concejales y concejalas**:

Mª Jesús Idoeta Madariaga *(a las 11:40 h se incorpora a la sesión y se retira a las 12:12 h)*

Izar Hernando Ibero

**Otros/as:**

Josune Lezana y Ana Murua, invitadas *(se incorporan en el punto n.º 4.2. y al finalizar el punto se retiran de la sesión).*

**Secretario**: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, por delegación de la Secretaria General.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA,

12447n II

ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

**1.- 2025eko martxoaren 17an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 20. akta, 2025eko martxoaren 17an egindako bilerari dagokiona.

* * * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, Batzordeburuak gaien ordena aldatzea erabaki du eta ondoren 4.2. eta 4.4. gaiak aztertu dira.

* * * *

**4.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.**

**4.2.- Interpelazioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Gizarte Zerbitzuen eskaintzaren eta langileen egoerari buruzkoa.**

*(11:42an Josune Lezana eta Ana Murua andreak bertaratu dira bilerara)*

Izar Hernando andreak interpelazio hau aurkeztu du:

“Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Maria Jesús Idoeta Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Hilabetetik gorako borrokaldian ari dira Udal Gizarte Zerbitzuetako langileak jada. Lanuzteak egin dituzte hilabeteko ostegunetan, %100eko jarraipenarekin. Martxoaren 27an greba eguna eta manifestazioa burutu zuten, aldarrikapenekiko langileen babes osoarekin. Langileen Batzordeak adierazi zuenez, “arduradun politikoen erantzunik jasotzen ez dutelako” iritsi ziren grebara, Donostiako Gizarte Zerbitzuetako langileak grebara iristen diren lehen aldia izanik. Langileek salatzen duten egoera jasangaitz honetan, ulertezina da Udal Gobernuak erantzunik eman ez

se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 17 de marzo de 2025.**

Se aprueba, por unanimidad, el acta número 20, correspondiente a la sesión celebrada el día 17 de marzo de 2025.

* * * *

Con la conformidad de todos/as los/as presentes, la Presidenta decide alterar el orden de tratamiento de los asuntos y a continuación se pasa a tratar los asuntos n.º 4.2 y 4.4.

* * * *

**4.- Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.**

**4.2.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la oferta de Servicios Sociales y la situación de las personas que trabajan en dichps servicios.**

*(A las 11:42 h las Sras. Lezana Ángulo y Murua Ustaritz se incorporan a la sesión)*

La Sra. Izar Hernando presenta la siguiente interpelación:

“Izar Hernando Ibero, concejala del Grupo Municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación a la concejala delegada de Acción Social Maria Jesús Idoeta, para que dé las explicaciones pertinentes en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El personal que trabaja en los Servicios Sociales Municipales lleva más de un mes en lucha. Han realizado paros todos los jueves, durante un mes, paros que han tenido un seguimiento del 100%. El 27 de marzo hicieron un día de huelga y celebraron una manifestación, cuyas reivindicaciones contaron con el apoyo total por parte de los trabajadores y trabajadoras. Según la Junta de Personal, convocaron la huelga porque "no reciben ninguna respuesta por parte de los responsables políticos", siendo la primera vez que el personal de Servicios Sociales de San

izana, eta mobilizazio ziklo osoan langileekin harremanik ez eduki izana. Izan ere, Udal Gobernuak ere onartzen du egoera latza dela Gizarte Zerbitzuetan, eta honen irtenbideak langileekin adostua izan behar du.

Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuak konpromisoa hartua du 2026ra begira Gizarte Ekintzako kontratazioa lehenesteko. Ordea, Gizarte Zerbitzuetan langileek salatzen duten saturazioak eta gainkargak uneko soluzioak behar ditu. Izan ere, zerbitzuaren kalitatean eragin nabaria izaten ari da egoera, baita langileen osasun arriskuan ere. Lan-karga izanik arazo nagusia, langileen batzordeak zuzenean Udal Gobernuari eskaera zehatzak eta egingarriak luzatu zizkion: langileen oporrak ordezkatzea lana gehiago ez pilatzeko eta atsedenerako eskubidea bermatzeko, hobekuntza informatikoak egitea lana arintzeko edota zerbitzuaren inguruko diagnostiko eguneratu bat egitea.

Horren aurrean, zenbait neurri hartuko zituela adierazi zuen zinegotzi delegatuak, baina neurri horien garapenaz ez dugu ezer berririk jakin (ez eta langileek ere). Martxoko udalbatzan, eta sailean antolatuta zegoen grebaren testuinguruan, langileek eskari zerrenda bat luzatu ziguten udalbatzako zinegotzi guztioi, erantzunik jaso ez duena.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

1. Zer dela eta ez da Udal Gobernua bildu Gizarte Ekintzako langileen ordezkariekin mobilizazioak hasi dituztenetik? Asmorik ba al du epe motzean biltzeko, eta zein proposamen luzatuko die langileei?

2. Jakinda saileko profesionalek duten gainkarga aspalditik datorrela, zer dela eta ez zuen sartu Udal Gobernuak Gizarte Ekintzako aurrekontuan kopuru handiagoa?

3. Egoera eta urgentzia ikusita, zer neurri hartuko ditu aurten profesionalen lan-karga arintzeko eta herritarrek kalitatezko arreta izan dezaten? Eta datorren urtera begira, zinegotzi

Sebastián lleva a cabo una huelga. En esta intolerable situación que denuncian los trabajadores y trabajadoras, resulta incomprensible que el Gobierno Municipal no haya dado ninguna respuesta y que no haya tenido ningún contacto con el personal durante el tiempo que han durado las movilizaciones. De hecho, el Gobierno Municipal reconoce que, en los Servicios Sociales, la situación es difícil y que la solución debe ser consensuada con el personal.

La concejala delegada de Acción Social se comprometió a priorizar la contratación en Acción Social de cara al 2026. Sin embargo, la saturación y sobrecarga denunciada por los trabajadores y trabajadoras de los Servicios Sociales requiere soluciones puntuales, puesto que la situación está teniendo un impacto significativo en la calidad del servicio, e incluso implica un riesgo para la salud de los trabajadores. Siendo la carga de trabajo el principal problema, la Junta de Personal hizo directamente al Gobierno Municipal unas peticiones concretas y factibles: sustituir a los trabajadores y trabajadoras durante sus vacaciones, para que el trabajo no se acumule más aún y para garantizar el derecho al descanso; llevar a cabo mejoras informáticas para agilizar el trabajo, y hacer un diagnóstico actualizado del servicio.

Ante ello, la concejala delegada manifestó que iba a tomar una serie de medidas, pero no hemos sabido nada sobre el desarrollo de estas (ni siquiera se ha informado al personal). En el Pleno de marzo, y en el contexto de la huelga organizada en el Departamento, el personal nos hizo llegar a todos los concejales y concejalas de la corporación una relación de peticiones que aún no ha recibido contestación.

Por todo ello, la concejala que suscribe hace la siguiente INTERPELACIÓN:

1. ¿Por qué motivo no se ha reunido el Gobierno Municipal con los representantes de los trabajadores de Acción Social desde el inicio de las movilizaciones? ¿Tiene intención de reunirse a corto plazo? ¿Qué propuesta va a plantear al personal?

2. Sabiendo que la sobrecarga de las y los profesionales del Departamento viene de lejos, ¿por qué el Gobierno Municipal no incluyó una cantidad mayor en el presupuesto de Acción Social?

3. Ante lo grave y urgente de la situación, ¿qué medidas va a adoptar este año para aliviar la carga de trabajo de los profesionales y para que la ciudadanía reciba una atención de

delegatuak adierazi duen baliabide profesionalen handitzea zertan zehaztuko da?

Donostian, 2025eko apirilaren 2a

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Izar Hernando eta M.ª Jesus Idoeta andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(12:02an Josune Lezana eta Ana Murua andreak bileratik atera dira) .*

**4.4.- Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, Kontseilu sektorialen eta hainbat bileraren deialdi-ordutegiari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau aurkeztu du:

"Vanesa Vélez De Pablos Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, honako INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, kontseilu sektorialak eta beste organoak biltzeko ezartzen diren ordutegiak direla-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Kontseilu sektorialak eta beste organo batzuen bilerak hasteko eta, beraz, amaitzeko ordutegiak, eztabaidagai izan dira Berdintasun Kontseiluan, familia-kontziliazioaren zailtasuna dela-eta. Kontseilu horretan kontuan hartu dugu arazoa, baina ez beste inongo kontseilutan, ezta lan-bilera batzuetan ere.

Hori dela-eta,

INTERPELAZIO hau aurkezten dugu

1. Zergatik ez ditu kontuan hartzen Gobernu Taldeak Berdintasun Sailak kontziliazioaren arloan ematen dituen jarraibideak?

2. Ba al du Gobernuak Taldeak horren inguruan ezer egiteko asmorik?

3. Erantzuna baiezkoa bada, zer urrats edo izapide egin asmo ditu?

calidad? Y de cara al año que viene, ¿en qué se concretará el incremento de recursos profesionales a que ha hecho referencia la concejala delegada?

San Sebastián, 2 de abril de 2025

Izar Hernando Ibero,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen las Sras. Hernando Ibero e Idoeta Madariaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 12:02 h las Sras. Lezana Ángulo y Murua Ustaritz se retiran de la sesión)*

**4.4.- Interpelación, presentada por el PP sobre el horario de convocatoria de los Consejos Sectoriales y diferentes reuniones.**

El Sr. Mota Iglesias presenta la siguiente interpelación:

"Vanesa Vélez De Pablos, Concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicio a las Personas, sobre el horario de convocatoria de los consejos sectoriales y diferentes reuniones.

JUSTIFICACIÓN

El horario en el que se convocan y, por tanto, terminan los Consejos Sectoriales y algunas otras reuniones han sido tema de debate en el Consejo de Igualdad en cuanto a la dificultad de la conciliación familiar. Si bien lo hemos tenido en cuenta en dicho consejo, pero en ningún otro y tampoco en algunas reuniones de trabajo.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no tiene en cuenta las directrices del Departamento de Igualdad en materia de conciliación?

2. ¿Tiene el equipo de gobierno la intención de hacer algo al respecto?

3. En caso afirmativo, ¿qué pasos o trámites piensa dar al respecto?

10740n XVII

4. Ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2025eko apirilaren 2a

Vanesa Vélez De Pablos,
PP udal taldeko zinegotzia".

Mª Jesús Idoeta andreak eta Jorge Mota jaunak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(M.ª Jesús Idoeta andrea *12:12etan bileratik atera da).*

* * * *

Jarraian, deialdian aurreikusitako gaiak aztertzeko hurrenkerari ekin diote berriro.

* * * *

**2.- Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalari egindako egindako kudeaketa-gomendioa eta Donostialdeko eskualdeko hainbat udalerritan Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua emateko mandatua formalizatzeko hitzarmena.**

Martin Ibabe jaunak, Arantza Gonzalez andreak, Jorge Mota jaunak eta Jabi Vitoria jaunak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Gaia bototara jarri eta aldeko irizpena izan du, aho batez.

*(12:23etan Markel Ormazabal jauna irten da).*

**3.- Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, LAB sindikatuak posta elektroniko korporatiboa erabiltzeari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau aurkeztu du:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas

4. En caso negativo, ¿por qué?

En San Sebastián, a 2 de abril de 2025

Vanesa Vélez De Pablos
Concejala Grupo Municipal PP".

Intervienen en este punto la Sra. Idoeta Madariaga y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(La Sra Idoeta Madariaga se retira de la sesión a las 12:12 h)*

* * * *

A continuación, se retoma el orden de tratamiento de los asuntos previsto en la convocatoria.

* * * *

**2.- Aceptar la encomienda de gestión de la Diputación Foral de Gipuzkoa al Ayuntamiento, y el convenio de formalización de la encomienda para la prestación del Servicio de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamento de diversos municipios de la comarca de Donostialdea.**

Intervienen en este punto el Sr. Ibabe Eceiza, la Sra. González García, el Sr. Mota Iglesias y el Sr. Vitoria Roma, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Sometido a votación el asunto, es informado favorablemente, por unanimidad.

*(A las 12:23 h se retira el Sr. Ormazabal Gaztañaga).*

**3.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el uso del correo electrónico corporativo por parte del sindicato LAB.**

El Sr. Mota Iglesias presenta la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo

Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, LAB sindikatuak posta elektroniko korporatiboa erabiltzeari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

2024/03/21ean, LAB sindikatuak mezu elektroniko bat bidali zien Udaleko langile guztiei, eta mezu horrek hau zion:

*POLITIKA XENOFOBOA ETA ARRAZISTA DONOSTIAN*

*Donostiako Udaleko LABeko Atal Sindikalak jakin du martxoaren 20an, osteguna, Manteo inguruan migratutako pertsonen kokaleku bat hustu dutela. Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren patruilek hartu dute parte.*

*Aipatu kokalekuak hilabete asko zeramatzan okupatuta, eta Udaltzaingoak behar bezala kontrolatzen zuen. Bertan ez zen inolako arazorik antzeman, ez segurtasunean, ez osasungarritasunean, espazioa garbi zegoelako eta bertan bizi ziren pertsonek portaera egokia zutelako. Bestalde, ikusten ez zen leku batean zegoen, eta ez zegoen auzotarrekin inolako gatazkarik.*

*Azken batean, bizitoki sozialaren alternatibarik ez zegoenez, kalean bizitzera behartuta zeuden pertsona batzuen bizilekua zen. Gure informazioen arabera, kokaguneko egoiliar guztiak SMUS udal zerbitzuaren (Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzua) erabiltzaileak dira, eta udal-erroldan, Osakidetzan eta HHEn (helduen hezkuntza) alta emanda daude, eta bertara joaten dira egunero eskolara.*

*Azken batean, gure gizartean inklusioaren bidean dauden pertsonek osatutako kokalekua zen. Hori horrela izanik, eta jakina denez etxetik ateratzeko arrazoia ez dela izan inolako gatazkagatik, ondorioztatzen dugu arrazoia jarrera xenofoboa eta arrazista besterik ez dela izan. Eta erakunde publiko honek aplikatu du.*

*LABentzat argi dago Corominas jaunaren (PP) jardun zinematografikoak argitara eman zuela kokalekuaren berri, sare sozialen bidez, asentamendu horren berri eman baitzuen, eta horrek bultzatu du Martin Ibabe (EAJ) Segurtasuneko zinegotzia hustuarazteko agindua ematera. Bestela esanda, kalean bizi behar izateak dakarren drama humanoa alderdikeriaz*

Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicios Generales, sobre el uso del correo electrónico corporativo por parte del sindicato LAB.

JUSTIFICACIÓN

Con fecha 21/03/2024 el sindicato LAB remitió un correo a todos los trabajadores del Ayuntamiento con el siguiente texto:

*POLÍTICA XENÓFOBA Y RACISTA EN DONOSTIA*

*La Sección Sindical de LAB del Ayuntamiento de Donostia ha tenido conocimiento de que se ha realizado el desalojo de un asentamiento de personas migradas el jueves día 20 de marzo en la zona de Manteo. En la ejecución del mismo han participado patrullas de la Guardia Municipal y de la Ertzaintza.*

*El asentamiento señalado llevaba muchos meses ocupado y estaba debidamente controlado por la Guardia Municipal. En el mismo no se había detectado ningún problema, ni de seguridad ni salubridad ya que el espacio estaba limpio y las personas residentes en el mismo tenían un comportamiento adecuado. Por otro lado estaba ubicado en un lugar no visible y no existía ningún conflicto con los vecinos.*

*En definitiva, era un lugar de residencia de unas personas que, al no existir alternativa de alojamiento social , estaban obligados a vivir en la calle. Añadir , que según nuestras informaciones todos los residentes del asentamiento son usuarios del Servicio municipal SMUS (Servicio Municipal de Urgencias Social), están dados de alta en el padrón municipal, Osakidetza y en la EPA (educación para adultos) a donde van a clase diariamente.*

*Era, en definitiva, un asentamiento formado por personas que están en el camino de la inclusión en nuestra sociedad. Siendo así, y quedando constancia que el motivo de su desalojo no ha sido por ningún tipo de conflicto, nos lleva a la conclusión de que el motivo no es otro que una actitud xenófoba y racista. Y ha sido aplicada por ésta Institución Pública.*

*Para LAB está claro que ha sido la actuación cinematográfica del señor Corominas ( PP ) que hizo público,por medio de las redes sociales, la ubicación del mencionado asentamiento lo que ha impulsado al concejal de Seguridad , Martin Ibabe ( PNV ) a dar la orden de desalojo. Dicho de otra forma, están utilizando de forma partidista el drama humano que supone tener que vivir en*

*erabiltzen ari dira.*

*Corominas jaunak bere bideoan galdetzen zuen "nola zitekeen Donostian jendea horrela bizitzea?", eta inplizituki eskatzen zion Udal Gobernuari irtenbide bat bilatzeko. LABek argi du konpontzeko bi modu baino ez daudela. Bat, Gizarte Arloan aurrekontuak handituz eta, bi, kontenplaziorik gabe botatzea. Ziurtzat jotzen dugu zinegotzi hau pozik egongo dela EAJk eginiko aukerarekin, eta horrela ez bada publikoki esatea gizarteratzeko helburu sozialekin aurrekontua handitzea babesten duela.*

*EAJren jarrerari dagokionez, ez gaitu ustekabean hartu, ez da lehen aldia PPren adierazpen publikoen ondoren, PPk markatzen duen ildotik jokatzen duena (adibidea; Egia auzoan afari solidarioak debekatzea). Horrelako jarduerei buruzko lehen hausnarketak pentsaraz diezaguke EAJk ez duela irizpiderik gai honi heltzeko, eta PPk eragindako egoerak direla eta. Hala ere, litekeena da bi alderdiak bat etortzea jarraitu beharreko jarduera-ildoetan, eta alkate jaunaren alderdian PPk adierazitakoaren antzeko iritzia izatea.*

*Edozein kasutan gogorarazi nahi dugu pertsonez ari garela. Pertsona horiek merezi dute, gu guztiok bezala, tratu duina, azpimarratuz erakundeak herritarrak babesteko daudela, eta ez jada dutena baino bizitza zailagoa egiteko.*

*LABetik Udaltzaingoa helburu alderdikoiekin erabiltzea eta erabilera horren oinarrian dauden jarrera xenofobo eta arrazistak salatzen ditugu. Adierazten dugu ez gaudela ados gure hirian migratutako pertsonek okupatutako asentamenduen desajoloarekin, horiek ez direnean inolako gatazka-gune, Udal hau ari den bezala. Gogorarazten dugu kokaleku horietako egoiliarrak kalean bizitzera behartuta daudela, erakunde publikoek ez dutelako erantzun duinik ematen.*

*Adierazpen honez gain, ESKATZEN DUGU:*

*Edozein hustuketa egiten bada, hustuketa hori printzipio humanitario minimo batzuk gordez egitea, agenteek herritar horiengana zuzen eta errespetuz jokatuz.*

*Behar besteko aurrerapenaz (24 ordu baino gehiagoz) abisatzea etxetik aterako dituztela, beren gauzak jaso ahal izan ditzaten eta jarduera*

*la calle.*

*El señor Corominas se preguntaba en su video "¿ como era posible que en Donostia hubiera gente viviendo así?" emplazando de forma implícita al Gobierno Municipal a buscar una solución. LAB tiene claro que solo hay dos formas de solucionarlo. Una, aumentando los presupuestos en el Area Social y , dos, echarles sin contemplaciones. Damos por hecho que éste concejal estará contento con la opción elegida por el PNV, si no es así que diga públicamente que apoya el aumento presupuestario con fines sociales de inclusión.*

*En cuanto a la actitud del PNV, no nos coje por sorpresa, no es la primera vez que tras declaraciones públicas del PP , actúa en la linea que éste marca ( ejemplo; prohibición de cenas solidarias en el barrio de Egia). Una primera reflexión sobre actuaciones así nos puede llevar a pensar que desde el PNV no hay criterio para abordar este asunto y que se deja llevar por situaciones provocadas por el PP. Aunque también es posible que ambos partidos coincidan en las líneas de actuación a seguir y que en el partido del señor Alcalde tengan una opinión análoga a la expresada por el PP.*

*En cualquiera de los casos queremos recordar que es trata de personas de lo que estamos hablando . Personas que se merecen, como todas y todos nosotras un trato digno recalcando que las Instituciones están para proteger a los y las ciudadanas y no para hacerles la vida mas difícil de lo que ya tienen.*

*Desde LAB denunciamos la utilización de la Guardia Municipal con fines partidistas y las actitudes xenófobas y racistas en la que se basa tal utilización. Declaramos que no estamos de acuerdo con el desajolo de asentamientos ocupados por personas migradas en nuestra ciudad cuando los mismos no son foco de conflicto alguno, tal y como está actuando este Ayuntamiento. Recordamos que los y las residentes de estos asentamientos son personas que se ven obligadas a vivir en la calle por la falta de una respuesta digna por parte de las Instituciones Públicas.*

*Mas allá de ésta declaración SOLICITAMOS:*

*Que en el caso que se realice cualquier desalojo, éste se haga guardando unos mínimos principios humanitarios con una actuación correcta y respetuosa de los agentes hacia éstos/as ciudadanos/as.*

*Que sean avisados con una antelación suficiente ( mas de 24 horas ) de que van a ser desalojados para que puedan recoger sus pertenencias y*

*horren ondoren etorkizun hurbila planifikatu ahal izan dezaten.*

*Batez ere beren gauzak ez errekisatzea, kanpadendak barne, haien etxebizitzak baitira.*

*Azken batean, etxetik botatzea zein ankerra den kontuan hartuta, pertsona gisa tratatzea eta tratatzea.*

Udal honen aurka, Udal honetako bi alderdi politikoren aurka (EAJ eta PP), Udalbatzako bi kideren aurka (Marten Ibabe eta Borja Corominas) eta Donostiako Udaltzaingoaren aurka sindikatu horrek egindako akusazioak, motibazio xenofoboekin jarduteari buruzkoak, lekuz kanpo daude, eta ezin dira hedapen-zerrendetara bidalitako mezu instituzional batetik egin.

Gure ustez, posta korporatiboaren erabilera barne-araudiaren mende dago, eta langileen eskubideekin zuzenean lotutako lan- edo sindikatu-gaietara mugatuta egon beharko luke. Baina ez da hala, mezuaren edukia ez da hertsiki lan-arlokoa, Udalbatzako kideak zuzenean salatzen ditu eta Udalaren barne-araudia urratzen du.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Zein arrazoi direla eta uzten da kontu korporatibo batetik Udalak berak sortutako difusio-taldeetara horrelako mezuak bidaltzen?

2. Ba al dago araudi argirik barne-postaren erabilerari buruz?

3. Zer dio horri buruz?

4. Halakorik ez badago, idazteko asmorik al duzue? Noiz?

5. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

6. Hitz egin al duzue LAB sindikatuarekin mezu horren inguruan (ez da bakarra izan)?

7. Zer erantzun eman dizuete?

8. Gobernu-taldeak zer egiteko asmoa du mezu horiek kontu korporatibo batetik zabaldu ez daitezen?

Donostia, 2025eko apirilaren 2a.

*planificarse su futuro inmediato tras esa actuación.*

*Que no se les requise ninguna de sus pertenencias, incluidas las tiendas de campaña, que son su hogar.*

*En definitiva que dentro de lo inhumano que es que se les eche de su hogar, sean tratados y tratadas como personas .*

Las acusaciones vertidas por este sindicato contra el Ayuntamiento, contra dos partidos políticos de este consistorio, PNV y PP; contra dos miembros de la corporación, Martín Ibabe y Borja Corominas, así como contra la Guardia Municipal de San Sebastián, de actuar con motivaciones xenófobas están fuera de lugar y no deberían poder realizarse desde un correo institucional remitido a las listas de difusión existentes.

El uso del correo corporativo entendemos que está sujeto a normativa interna y debería estar restringido a cuestiones laborales o sindicales relacionadas directamente con los derechos de los trabajadores. Pero no es así, el contenido del mensaje no es un tema estrictamente laboral, acusa directamente a miembros de la corporación municipal y vulnera la normativa interna del consistorio.

Por todo ellos presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son las razones por las que se permiten mensajes de este tipo enviados desde una cuenta corporativa a grupos de difusión creados por el propio Ayuntamiento?

2. ¿Existe una normativa clara sobre el uso del correo interno?

3. ¿Qué dice al respecto?

4. En caso de no existir ¿tienen intención de redactarla? ¿Cuándo?

5. En caso negativo ¿cuáles son las razones?

6. ¿Han hablado con el sindicato LAB sobre este mensaje (no ha sido el único)?

7. ¿Qué les han respondido?

8. ¿Qué piensa hacer el equipo de gobierno para que estos mensajes no sean difundidos desde una cuenta corporativa?

En San Sebastián, a 2 de abril de 2025

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularraren bozeramailea”.

Jorge Mota jaunak eta Ana Lopez andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**4.1.- Interpelazioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Euskotrenen obren jarraipena egiteko batzordearen deialdi ezari buruzkoa.**

Jabier Vitoria jaunak interpelazio hau aurkeztu du:

“Jabier Vitoria Romak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Osoko Bilkuraren Araudi Organikoaren 134. artikuluaren babesean, honako INTERPELAZIO hau aurkezten dio Olatz Yarza Garagorriri, Mugikortasuneko eta Garraioko zinegotzi ordezkariari, Gune Publikoetako Batzordean ahoz erantzun dezan, Euskotrenen obren jarraipena egiteko batzordearen deialdi ezari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Euskotrenen obren jarraipena egiteko batzorde ez-iraunkorra eratu zen.

Martxoaren 12an Udalbatzaren Idazkaritza Orokorreko Erregistroan, Euskotrenen obren jarraipena egiteko batzorde ez-iraunkorraren bilera baterako deia urgentziaz egitea eskatu zen Donostiako metroaren pasabidea eraikitzeko gastuei buruz informazioa jasotzeko.

Gainera, erregistratutako idatzian jartzen zuen bezala, araudiaren arabera, Donostian Euskotrenek dituen obren jarraipena egiteko batzordea bi hilabetero bildu beharko litzateke, eta azkena 2024ko azaroaren 6ean izan zen.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau aurkezten du:

- Zer dela eta ez da oraindik deialdirik jaso? Ba al dago deialdia bidaltzeko asmorik? Hala bada, noiz?

Donostian, 2025eko apirilaren 2a

Jabier Vitoria Roma
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular”.

Intervienen en este punto el Sr. Mota Iglesias y la Sra. Ana López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**4.1.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la no convocatoria de la Comisión de Seguimiento de las obras de Euskotren.**

El Sr. Vitoria Roma presenta la siguiente interpelación:

“Jabier Vitoria Roma, concejal del Grupo Municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN, relativa a la no convocatoria de la Comisión de seguimiento de las obras de Euskotren, a Olatz Yarza Garagorri, concejala delegada de Movilidad y Transporte, para su respuesta oral en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFICACIÓN

En su día se creó la Comisión no permanente de seguimiento de las obras de Euskotren.

Con fecha 12 de marzo en el Registro de la Secretaría General del Pleno se solicita la convocatoria urgente de una reunión de la Comisión no permanente de seguimiento de las obras de Euskotren para informar sobre los gastos de construcción de la pasante del metro de San Sebastián.

Además, tal y como se recogía en el escrito registrado, según la normativa, la comisión de seguimiento de las obras de Euskotren en San Sebastián debería reunirse con una periodicidad bimestral, y se reunió por última vez el pasado 6 de noviembre de 2024.

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué todavía no se ha recibido ninguna convocatoria aún? ¿Hay intención de enviarla? En caso afirmativo, ¿cuándo?

San Sebastián, a 2 de abril de 2025

Jabier Vitoria Roma
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Olatz Yarza andreak eta Jabi Vitoria jaunak, hitz egin dute puntu hauetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto la Sra. Yarza Garagorri y el Sr. Vitoria Roma, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:38 etan Markel Ormazabal jauna berriz sartu da bilerara)*

*(A las 12:38 h el Sr. Ormazabal Gaztañaga se reincorpora a la sesión)*

**4.3.- Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, Suhiltzaileen Zerbitzuaren egoerari buruzkoa.**

**4.3.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la situación en la que se encuentra el servicio de bomberos.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Talde Popularreko zinegotzi Vanesa Vélez De Pablosek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Su Itzaltze Zerbitzuaren egoerari buruzko INTERPELAZIO hau egin behar dio Eneko Goia Laso alkateari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Orain urtebete baino gehiago, suhiltzaileen ordezkari batzuk Udalean ordezkaritza duten talde politiko guztiekin bildu ziren. Bilera haien ondorioz, zenbait interpelazio eta mozio etorri ziren; askotarako balio izan ez zuten interpelazio eta mozioak, ordea, egoerak lehen bezala segitzen du eta.

Duela urtebete esan ziguten lanean ari zirela Aldundiarekin, zerbitzu komun bat izan zedin. Suhiltzaileen kexak ikusita, ordea, iruditzen zaigu haien egoera ez dela aldatu.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu Taldeak zergatik ez du konpondu suhiltzaileek nozitzen duten lan-egoera prekarioa?

2. Egin al du zerbait Gobernu Taldeak horren inguruan?

3. Erantzuna baiezkoa bada, zer urrats edo izapide egin ditu?

4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

5. Gobernu Taldeak badaki Foru Aldundiak zer jarrera duen gai horretan?

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Vanesa Vélez De Pablos, Concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicio a las Personas, sobre la situación en la que se encuentra el servicio de bomberos.

JUSTIFICACIÓN

Hace más de un año, algunos de los representantes de los bomberos se reunieron con todos los grupos políticos representados en el Ayuntamiento, fruto de ello, interpelaciones y mociones que no sirvieron para mucho, ya que la situación sigue siendo la misma.

Hace un año nos dijeron que se estaba trabajando con la Diputación para que hubiera un servicio común. Entendemos por las quejas de lo bomberos que la situación sigue siendo la misma.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no ha solucionado la precaria situación laboral que sufren los bomberos

2. ¿Ha hecho el equipo de gobierno algo al respecto?

3. En caso afirmativo, ¿qué pasos o trámites ha dado al respecto?

4. En caso negativo, ¿por qué?

5. ¿Tiene el equipo de gobierno conocimiento sobre cuál es la postura de la Diputación Foral con respecto a este tema?

6. Erantzuna baiezkoa bada, zein da? Noiz egin du horri buruzko adierazpenen bat?

6. En caso afirmativo, ¿cuál es?, ¿cuándo ha hecho una manifestación al respecto?

7. Erantzuna ezezkoa bada, eskatu behar diozue Aldundiari egiteko?

7. En caso negativo, ¿van a interpelar a la Diputación en este sentido?

Donostian, 2025eko apirilaren 2an

En San Sebastián, a 2 de abril de 2025

Vanesa Vélez De Pablos,
PP udal-taldeko zinegotzia".

Vanesa Vélez De Pablos
Concejala Grupo Municipal PP".

Martin Ibabe eta Jorge Mota jaunek, hitz egin dute puntu hauetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto los Sres. Ibabe Eceiza y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

Eta bestelako aztergairik ez dagoela, Batzordeburuak goiburuan adierazitako eguneko eguerdiko hamabiak eta berrogeita hamabietan bilkura amaitutzat jo du; eta NIK, idazkari gisa, horren guztiaren FEDE EMATEN DUT.

Y no habiendo más asuntos, la Presidenta declara terminada la sesión a las doce horas y cincuenta y dos minutos de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, EL SECRETARIO, DOY FE.

O.E./Vº Bº
BATZORDEBURUA / LA PRESIDENTA

Ana Lopez Loiarte

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Iñaki Txintxurreta (21/05/2025 14:40 CEST), Ana Lopez Loyarte (21/05/2025 15:35 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : ULI0-V5XV-HT0K-45WX